



TENISA

2025ko ARAUDIA

Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak EUSKADIKO XLII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOEN ekitaldia antolatuko du, Euskadiko Tenis Federazioarekin lankidetzan, 2025ko maiatzaren 24 eta 25an Gasteizen (Araba), Mendizorrotzako Tenis pistetan. Hauxe duzue jokoaren araudia:

1. JOKO SISTEMA

Lurralde Historiko bakoitzak bi neska eta bi mutil izango ditu ordezkari, baita kapitain bat (aukeran) ere.

3na jokalariko **BI TALDEK** hartuko dute parte jokoan, denek denek kontra jokatuz. Talde bakoitzeko lehena, bigarrena eta hirugarrenak sailkatuko dira azken sailkapenaren arabera (fase hau hilaren 24an, larunbatez, jokatuko da).

Ilgandean, maiatzaren 25an, hirugarrenak beraien artean, bigarrenak beraien artean eta lehenak lehenen aurka jokatuko dute azken sailkapen bat suertatuz. Partida guztietan irabazleak 1,5 puntu jasoko ditu, hauek lurraldeko sailkapena eratzeko baliagarriak izango dira. Banakako partidak bukatu eta gero, guztiok guztion aurka binakako txapelketa jokatuko da, irabazleak 2 puntu lortuko dituzte lurraldeko sailkapenerako.

Banakako partidetan 4 jokotako 3 setetan onena baloratuko da eta tie-break bat jokatuko da 4 jokotan berdinketa gertatuz gero. Set batean berdinketa gertatuz gero, "tie-break" bat jokatuko da (7 puntutan).

Binakako partidetan 4 jokotako 3 setetan onena baloratuko da, puntu erabakigarriaren sistemaren bitartez, tie-break bat jokatuko da 4 jokotan berdinketa gertatuz gero. Set batean berdinketa gertatuz gero, "tie-break" bat jokatuko da (7 puntutan).



Jokalari batek txapelketa bukatu aurretik justifikatu gabe utziko balu, banakako sailkapenean lortutako emaitza galduko luke eta bere lurraldeko taldea hirugarren postura pasako luke zuzenean.

2. PARTAIDETZA

2011 eta 2012ean jaiotako jokalariek bakarrik hartu dezakete parte, infantil kategorian alegia.

Partaideen eskola lizentziak aurkeztu beharko dira, edo bestela, parte-hartzaileen triptikoa, dagokion Foru Aldundiaren zigilu eta sinadurarekin. Horiek aurkezten ez badira, NAN edo pasaporte originala aurkeztu beharko da aktan inskribatu ahal izateko, bestela, ezin izango du ekintzan parte hartu.

2024/2025 denboraldian zehar lizentzia federatua duten edo izan duten jokalariek ezingo dute parte hartu.

Taldeak honela geratuko dira sailkatuta, zozketa egiteko irizpideak ondorengoak izan dira: Talde batean aurreko urteko txapelduna egongo da eta bestean txapeldunordea, finalik jokatu ez zuen lurraldeko lehenak zozketa bidez sartuko da taldeetan, eta beste jokalariek guztiak taldeetan sartuko dira, talde berean bi lurralde berdinean sartzea ekidituz.

MUTILEN A TALDEA

- 1.- GIPUZKOAKO 1goa
- 2.- ARABAKO 1goa
- 3.- BIZKAIKO 2.

MUTILEN B TALDEA

- 1.- BIZKAIKO 1goa
- 2.- GIPUZKOAKO 2.
- 3.- ARABAKO 2.



NESKEN A TALDEA

- 1.- GIPUZKOAKO 1goa
- 2.- BIZKAIKO 1goa
- 3.- ARABAKO 2.

NESKEN B TALDEA

- 1.- ARABAKO 1goa .
- 2.- GIPUZKOAKO 2.
- 3.- BIZKAIKO 2.

3. SARIAK

URREZKO – ZILARREZKO – BRONTZEZKO DOMINAK (neska eta mutiletan banakako kategorian).

URREZKO – ZILARREZKO – BRONTZEZKO DOMINAK (lurraldeko kategorian).

4. ARBITRAJEA

Jesus Paredes izango da jokoen epaile arbitroa (Arbitro Nazionalea).

5. EZBEHARREN AURREAN

Lesio edo ezbeharrik sortu ezkeror nahi eta nahi ez antolakuntzak kirol eremuan izango duen arduradunarengana jo beharko da. Honek eman beharreko gainontzeko pausuak bideratuko ditu.

6. AZKEN OHARRA

Araudi honetan jasotzen ez diren kasuak Euskal Federazioaren lehiaketa-batzordeak erabakiko ditu eta bere erabakiak apelaezinak izango dira.

Araudi honetan jasotzen ez diren gaietan hauei jarraituko zaie:

- a) 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- b) 125/2008 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Eskola Kirolarena.



EUSKADIKO XLII. ESKOLARTEKO KIROL JOKOAK
XLII JUEGOS DEPORTIVOS ESCOLARES DE EUSKADI



- c) 391/2013 DEKRETUA, uztailaren 23koa, eskola-kiroleko lehiaketen diziiplina-
arabideari buruzkoa.
- d) AGINDUA, 2025eko urtarrilaren 8koa, Jaurilaritzako Lehenengo
Lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuarena, 2025eko
Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLII. edizioaren deialdia egiteko dena.
- e) Ebazpena, 2025eko otsailaren 4koa, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren
zuzendariarena, 2025eko Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen XLII edizioko
lehiaketako epaile bakarra izendatzen duena.
- f) Euskadiko tenis federazioaren araudiak xedatzen duenari.

Euskara eta gaztelaniazko araudien interpretazioetan ezberdintasunak izan
ezkero, jatorrizko hizkuntza lehentasuna izango du.